



Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak

Zer dira administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak?

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak izaera korporatiboa eta zeharkakoa duten antolaketa- eta teknika-osagaiak dira, laguntzeko gobernantza operatiboarekin batera, herritarrekiko harremanetarako kanal elektronikoaren euskarri direnak:

- Erabiltzaileen behar komunak asetzen dituzte,
- Elkarrengarritasuna, segurtasuna, eskala-ekonomiak, arrazionalizazioa eta administrazio-jardunaren sinplifikazioa errazten dituzte.

Hainbat hornidura-modu izan ditzakete, zerbitzu edo produktu gisa, edo plataforma gisa integratu daitezke.

Zerbitzu eta azpiegitura komun nahitaezko erabilera

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak nahitaez erabili behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde-administrazioko organo guztiek.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek ere erabili behar dituzte, zuzenbide publikoari lotutako prozeduretan.

Zerbitzu eta azpiegitura komun horiek erabiltzeko hitzarmenak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu beste administrazio publiko batzuekin, administrazio elektronikoko zerbitzu eta azpiegitura komun horiek erabiltzeko.


Zerbitzu eta azpiegitura komun zerrenda

Hona hemen zerbitzu eta azpiegitura komunak:

- Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa.
- Erregistro Elektronikoko Orokorra.
- Postontzi elektronikoko orokorra.
- Iragarki-taula elektronikoa.
- Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa
- Ahalordetzeen erregistro elektronikoa.
- Herritarren Karpeta - Nire karpeta.
- Artxibo elektronikoko bakarra.
- Ordainketa-pasabidea.
- Ziurtagiriak egiaztatzeko plataforma eta beste identifikazio-sistema batzuk.
- Datuen bitartekaritza-zerbitzuak.
- Dokumentuen egiazkotasuna eta osotasuna egiaztatzeko zerbitzua.
- Izapideen kudeatzailea.
- Eredu espezifikoaren kudeatzailea.
- Prozedurak hasteko eskaerak masiboki aurkezteko sistema.
- Jakinarazpen-sistema.

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunak

Administrazio elektronikoaren zerbitzu eta azpiegitura komunen eredu teknologikoa



1.- Prozedura guztiek egoitza elektronikoan dute fitxa (deskribapena, araudia, organo kudeatzaileak, hartzaileak). Fitxa horietara sartzeko ez da identifikazio elektronikorik behar.

2.- Fitxa bakoitzak eskabideen web-formulario elektronikoa ditu. Aurrez aurreko izapideen kasuan, formulario elektronikoa horietara sartzeko EZ da beharrezkoa identifikazio elektronikoa izatea. Izapidetze elektronikoaren kasuan, inprimaki horietara sartzeko identifikazio elektronikoa behar da.

3.- Beste administrazio batzuekiko datuen bitartekaritza-kontsultarako baimena duten eskaera guztiek NISAE datu-bitartekaritzako plataformaren bidez egingo dituzte elkarreragingarritasun-eskaera horiek.

4.- Eskabideek zuzenketarik behar badute, Nire Karpeta herritarren karpeta jakinarazpen-erretiluaren bidez izapidetuko dira. Nire Karpetara sartzeko, identifikazio elektronikoa behar da.

5.- Eskaera bat bidaltzen den unetik, espediente elektronikoa bat sortzen da. Espediente elektronikoa hau Nire Karpeta herritarren karpetatik eskura daiteke. Espediente honetara interesdunak eta, hala badagokio, ordezkariak baino ezin dute sartu. Espediente horrek izapidetzearen historia, interesdunak aurkeztutako dokumentuak eta Administrazioak bidalitako dokumentuak jasotzen ditu.

OHARRA: Espedienteetan dauden eta interesdunei jakinarazten ez zaizkien lan-dokumentuak ezin dira herritarren karpetatik (Nire Karpeta) eskuratu.